

TXEPETXA

[Pedro Mari Otaño](#)

(Zizurkil, Gipuzkoa, 1857 – Rosario, Argentina, 1910)

1/ Askotan esan izan dute gizon ikastun argiek / nola pixtiak izan litezkeen gure erakuslariak; / erlea da bat aipatzen dena, o zer lan harrigarriak / jartzen dituzten gure aurrean honek eta txingurriak! /Txepetxak berriz erakusten du hainbeste nola haiek biek.

2/ Euskal lurreko txorietan den txikitxoena da bera, / gaztaina kolore bakarrekoa, nahi bada ez da ederra; / begi argiak, buru xanpala, moko ttenttea aurrera, / gorputza motxa, hanka laburrak, xaltokako ibilera, / xalapartako hegalaria eta kantari ergela.

3/ Txotx batek aise jasoko luke nola karga gutxi duen, / baina gustatzen zaio jartzea adar sendoxeagoan; / amildu arren ez liteke galdu dakielako hegoan, / baina aurkitzen baldin bada ere burnizko aldamiotan, / hiru-lau aldiz xanpatzen du seguru ote dagoen.

4/ Udaberrian lehendabiziko habia txepetxarena / azaltzen da, eta ezaguna: goroldiozkoa dena; / arbol-gerrian huntz-tartean du lekurik maiteena, / eta gizon askok ikustean irispidean dagoena, / esan ohi dute: «Zer konfiantza, txori txar honek duena!».

5/ Eta edozeinek esan lezake, berari begiratzean, / arretarik ez daukala egin dakioken gaitzean; / ez idurian hark habiari beste zuloa atzean / egiten dio, handik joateko aurrekoa tapatzean, / erakutsiz pentsa dezagula nola atera sartzean.

ZAVALA, Antonio [bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille] (1993). [Pedro Maria Otaño eta bere ingurua I](#). Donostia: Auspoaren Sail Nagusia, Sendoa. (403-405).